

Usurbilgo Udala

2021EKO MAIATZAREN 27AN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Agurtzane Solaberrieta Mesa

Zinegotziak

Beñat Larrañaga Urdanpilleta
Lur Etxeberria Gurrutxaga
Joxe Mari Iribar Zapiain
Ainhoa Arrozpide Landa
Luken Arkarazo Silva
Oskar Santamaria Pikabea
Itziar Basterrika Unanue
Josune Urkola Larrarte
Carlos Pérez Fraisoli
Francisco José (Patxi) Suárez Pérez

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel

Kontuhartzailea: Xabier Olano Jauregi

Ez dira bertaratu: Mirari Azurmendi Sorazu eta Andoni Atxega San Sebastian.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.


Usurbilen, 2021eko maiatzaren 27an arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Agurtzane Solaberrieta Mesa izan da batzarburua.

1.- AINHOA ARROZPIDE LANDAK ZINEGOTZI KARGUA HARTZEA.

Alkateak adierazi du aurreko plenoan Aroa Etxeburuak zinegotzi kargua utzi zuela bizitzako gorabeherak hala behartuta, eta bere erabakia ulertu eta errespetatu besterik ez dutela. Zorte bat izan dela dio bera ezagutzea eta berarekin lan egitea eta onena opa diotela.

Aroaren tokia EH Bilduren zerrendan bederatzigarren postuan zihoan Ainhoa Arrozpidek hartuko duela esan du. Izugarri estimatzen duen pertsona dela Ainhoa esan du, militante eta ekintzaile nekaezina, soberan demostratu duela uste du beti dagoela bere onena emateko prest Usurbil hobe bat lortzeko zeregin honetan.



Usurbilgo Udala

Jarraian, kargu hartzeari ekin zaio.

Idazkariak Hauteskunde Batzorde Zentraletik jasotako kredentziala irakurri du.

Jarraian zina egiteko testua irakurri du: “Indarrean dagoen legeak esaten du Konstituzioari zin egin behar zaiola eta ezinbesteko baldintza dela kargua hartzeko, hori egin ezean ezingo lukeela kargua hartu eta alkatearen hautapenean parte hartu ere ez. Azken hau lehenengo plenoari dagokionez.”

Ainhoa Arrozpidek zin egin du: “Legeak hala behartuta, hitz ematen dut”.

Ondoren, Ainhoa Arrozpidek hitz hauek esan ditu: “Lehenengo hitzak Aroa Etxeburuarentzat dira, zinegotzi kargua uztea erabaki du eta Agurtzanek esan duen bezala erabaki hori ulertu eta errespetatzea besterik ez eta onena opa diot.

Aroak bere ibilbidea egin du eta niri geratzen zaidan ibilbidea oparoa izango dela espero dut.

Ezagutzen nauzuenok badakizue nire afizioetako bat bidaiatzea dela. Gaur abiatzen dudan ibilbide hau ere bidai bat bezala irudikatzen dut, bidai guztietatik asko ikasi dut, ekarpen asko egin dizkirate eta ziur nago oraingo honetan ere hala izango dela. Gustuko dudan zerbait da, usurbildarrentzat, Usurbil, eta oso harro esaten dut leku guztietan usurbildarra naizela.

Momentu hau irudikatuko bagenu, trenaren zain geltokian egongo nintzateke, baina martxan datorren tren batetara igotzera noa, eta esango nuke martxa onean datorren tren delako. Egia da pandemiak agian abiadura gelditu arazi egin diola baina inoiz ez dut nahi izan abiadura handiko bat, eta niretzako garrantzitsua da nola doan eta noruntz doan. Tren hori proiektu asko garatzen ari da, gogo asko dago, anbizio asko dago eta ezaugarri horiek dituen tren batetara gustora igoko naiz. Gainera ikusi dudanean Txokoaldetik pasatzean asko igo direla tren horretara, orain Usurbilera datorrenean Santueneatik pasako da eta badirudi herritar gehiago bilduko garela. Inor atzean uzten ez duen tren bat dela uste dut.

Niretzat ohore bat da EH Bilduko zinegotzi talde honetako beste zinegotzi bat izatea, baina ohore handiagoa da talde honen edo trenaren gidari Agurtzane Solaberrieta zu izatea. Eskertzen dizkizut pilo bat apirileko plenoan eskaini zenizkidan hitzak eta gaur berretsi dituzunak, eta bere osotasunean itzuliko nizkizuke izenak aldatuta. Kargua hartu izan duzunean, hainbat aurkezpenetan... euskal idazleen edo mundu mailako idazleen esaldiak erabiltzen dituzu, baina nik zureak ekarri nahiko nituzke gogora, zehazki 2019ko ekainaren 18an alkate kargua hartzean eta Udalbatza osatzean esan zenituenak.

Nire egiten ditut eta hitzez-hitz horrela aipatu nahiko nituzke: Sendotasunez jarraituko dugu behetik gora, Usurbildik Euskal Herriaren norabidean, burujabetza lantzen, gure herria euskalduntzen, bizikidetza sakonduz, euskal preso eta iheslari guztiak etxerako bidean jartzen, justizia soziala borrokatzen herritar guztiak bizitza duina izan dezaten eta guzti hori feminismotik uneoro edanez.

Amaitzeko, zinegotzi izatea erantzukizun handiko ardura delakoan nago, onartu behar dizuet azken egunetan eta gaur bertan ere oso urduri nabilela eta esperientziak erakutsi izan dit



Usurbilgo Udala

urduri zaudenean gauzak ondo ateratzen direla, benetan saiatzen zarelako eta gauzetaz arduratzen zarelako.

Azken udal hauteskundeetan 1.651 usurbildarrek EH Bilduk aurkeztutako herri programaren eta lan-taldearen aldeko hautua egin zuten eta haiei esker nago ni hemen, egia da gero norberak hartzen duela kargua, baina onartu behar dut ezinezkoa izango litzatekeela nire inguruan babes bat edukiko ez banu, etxekoen eta lagunen babesa ezinbestekoa izango dut jardun honi orduak eskaini ahal izateko. Orain arte bezala oso gertu eduki ditut, badakite zein diren, eskerrak eman nahi dizkiet, izan ere nire ibilbidean akatsak egin izan ditut, oztopoak ere izan ditut eta gainditzeko unean beti hor eduki ditudanez espero dut hor izango ditudala.

Gainontzeko alderdieteako kideei ere nire eskua luzatzen dizuet jardun honetan, zuek ere usurbildarren ordezkari zarete, gure herriaren aniztasuna hemen irudikatuta dago, beraz, zuei ere errespetu bat zor dizuet. Garbi daukat bai usurbildarrentzat bai Usurbilentzat onak diren helburuetan eta proiektuetan bidelagun izango garela eta noski zenbait gaietan ere ezberdintasunak izango ditugu eta horiek errespetutik kudeatzen saiatuko naiz.

Niretzat erronka berezi bat ere bada Udalbatza hau, EAJko zinegotzia den Carlos Pérez osaba dut, nahiz eta alderdi ezberdinetan egon gauza askotan bat egingo dugu usurbildarren onerako baina bat egiten ez dugun horietan errespetua gailentzea nahiko nuke bion arteko harremana orain artekoa bezala izaten jarraitzeko.

Besterik gabe, lanari ekingo diogu.”

Txaloak izan dira.

Josune Urkolak hitza hartu du eta Ainhoari ongietorria eman dio eta ibilbide berrian zortea izatea opa dio.

Patxi Suárezek ere ongietorria eman dio.

2.- 2020/12/23KO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA.

Batzarkideek 2020/12/23ko bilkurako akta onartu dute, Ainhoa Arrozpideren abstentzioarekin eta gainontzekoen aldeko botoarekin.

3.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2021EKO APIRILAREN 26TIK MAIATZAREN 21ERA (2021/341-2021/449).

Alkatetzak 2021eko apirilaren 26tik maiatzaren 21era bitartean (2021/341-2021/449) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.



Usurbilgo Udala

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

4.- 2021 AURREKONTU EXEKUZIOAREN BERRI EMATEA.

Alkateak esan du urteko lehen hiruhilekoa igarota aurrekontuaren exekuzioaren berri ematen dela eta kontuhartzaileari eman dio hitza.

Kontuhartzaileak adierazi du banatu den dokumentazioak islatzen duela ondoen aurrekontuaren exekuzioa. Momentuz txukun doala uste du eta espero du ezustekorik ez izatea.

Norbaitek zalantzaren bat badu, azalpenak emango dituela esan du.

Batzarkideei 2021eko Aurrekontu Exekuzioaren berri eman zaie eta hauek jakinaren gainean geratu dira.

5.- 2021/385 DEKRETUA BERRESTEA: A-59 (UGARTONDO) EREMUKO BARNE-ERREFORMARAKO PLAN BEREZIAREN TESTU BATEGINEKO EQ.1 PARTZELAN ZUZKIDURA-ALOJAMENDUAK EGITEKO EXEKUZIO OBRA KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO BALDINTZA ZEHATZEN ORRIETAN ALDAKETA EGITEA.

Alkateak adierazi du apirilko plenoan Txirikorda egiteko obra kontratatzekeo pleguak onartu zituztela. Gerora konturatu zirela dio pleguetako artikulua batean zuzenketa txiki bat egin behar zela eta aldaketa dekretuz egin zenez orain plenoari aldaketa hori berrestea dagokiola esan du.

Batzarkideek 2021/385 zenbakidun dekretua aho batez berretsi dute.

Honela izan da bozketa:


Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapiain, Ainhoa Arrozpide Landa, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Carlos Pérez Fraisoli eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, aho batez berretsi da.

6.- 2022 URTERAKO HERRIKO JAIEGUNA IZENDATZEA.

Batzarkideek alkatearen proposamena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp.zk.: ID.02/2021-0080



Usurbilgo Udala

Maiatzaren 20ko Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean maiatzaren 4ko 132/2021 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanerako Jaiegunen Egutegi Ofiziala 2022. urterako onartzeko dena, argitaratu da. Bertan, Euskal Autonomia Erkidegoko langileen 2022 urteko jaiegunen egutegi ofiziala onartzen da.

Aipatu dekretuaren bigarren artikuluan xedatzen da tokian tokiko jaietako bi egun ere jaiegun izango direla. Horietako bat, udalek finkatzen dute.

Hau guztia horrela, Udalbatzarra honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

LEHENA: 2022ko Santixabel eguna, uztailaren 2a (larunbata) herriko jaieguna izatea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri Gipuzkoako Lan, Enplegu eta Gizarte Politiketako Lurralde Ordezkaritzari ematea.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zampirain, Ainhoa Arrozpide Landa, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Carlos Pérez Fraisoli eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, aho batez onartu da.

7.- ARTZABAL JUBILATU EGOITZAKO TABERNAREN KUDEAKETA ZERBITZUA EMATEKO KONTRATUAREN LUZAPENA.

Itziar Basterrikak hitza hartu du eta azalpenak eman ditu. Hasteko, diktamenean jasota dagoen moduan aurrekariak aipatu ditu. Artzabal jubilatu egoitzako tabernaren kudeaketa zerbitzua 2016an Igor Gorritiri 5 urtetarako esleitu zitzaiola esan du, baina beste 5 urtez luzagarria, urtez urteko luzapenekin.


Gustora daudela dio Igor Gorritik egiten duen lanarekin eta tabernari ematen dion bizipozarekin eta kontratua urtebetez luzatzea proposatzen da.

Hemendik aurrera urtez urte luzatuko dela kontratuta eta behin 5 urteak igarota berriz lizitatu beharko dela aipatu du.

Batzarkideek, Osasun eta Gizarte Zerbitzuen batzordearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp. Zkia.: ID.05/2016-0024

1.- AURREKARIAK



Usurbilgo Udala

2016ko maiatzaren 10ean egindako ezohiko bilkuran erabaki zen Igor Gorritiri esleitzea Artzabal Eraikineko “Gure Pakea” jubilatuen tabernaren kudeaketa. 2016ko ekainaren 6an aipatutako esleipenaren kontratua sinatu zen.

Plegu administratiboetan eta kontratuan aurreikusten den bezala, kontratuaren hasierako iraupena 5 urtetakoa izango zen kontratua beste 5 urtez luzatua ahal izango zen, urtez urte, hortaz, gehienez ere hamar urteko iraupena izango zuen. Beraz, 2021 ekainaren 5 etik aurrera 5 urteak igarota lehen luzapena gauzatzeko aukera dago betiere bi alderdiak ados badaude.

Igor Gorritik, apirilaren 27ko eskaera baten bitartez, kontratuaren luzapenerako eskaera egin du.

Kontratuaren jatorrizko kanonari dagokionez, hileko 1.600,00 euro (%21eko BEZ 336,00 guztira 1.936,00 euro) izaten jarraituko du pandemia dela eta egon litezkeen egokitzapenen kalterik gabe.

Gizarte Zerbitzuen saileko arduradunak kontratua luzatzearen aldeko txostena osatu du.

2.- APLIKAGARRIA DEN LEGEDIA

- 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duena.
- Maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 legea partzialki garatzen duena.
- Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua, Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duena.

Hori dela eta, azaroaren 28ko 2568/1986 Dekretuak onartzen duen Toki Erakundeetako antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoaren Erregelamenduan (ROF delakoa), 175. artikuluan ezarritakoaren arabera, kontratu honen organo eskudunari honako erabaki hau hartzeko proposatzen zaio:

Guzti hau kontutan izanik, Osasun eta Gizarte Zerbitzuen Batzordeak 2021eko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Itziar Basterrika, Beñat Larrañaga eta Carlos Perez-en aldeko bozkekin, aho batez, luzatutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENENGOA: Igor Gorriti-ri “Artzabal” jubilatua egoitzako tabernaren kudeaketa zerbitzua emateko kontratuaren luzapena egitea urte baterako, 2021eko ekainaren 6tik 2022ko ekainaren 5era.



Usurbilgo Udala

BIGARRENA: Hitzarmenaren 2. klausulan ezarritako kanona matentzea, hau da, hileko 1.600,00 euro (gehi %21eko BEZa 336,00 €; guztira 1.936,00 €/hileko), pandemia dela eta egon litezkeen egokitzapenen kalterik gabe.

HIRUGARRENA: Erabakia Igor Gorritiri, Gizarte zerbitzuetako sailari eta Kontu-hartzaitzari jakinaraztea.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapiain, Ainhoa Arrozpide Landa, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Carlos Pérez Fraisoli eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, aho batez onartu da.

8.- ADINEKO PERTSONENTZAKO PUNTAPAX EGUNEKO ZENTROAREN ERABILERA ETA KUDEAKETA ZERBITZUA EMATEKO KONTRATUAREN LUZAPENA.

Itziar Basterrikak hitza hartu du eta esan du Eguneko Zentroko garraio zerbitzua GSR enpresak egiten duela. 2018an 3 urtetarako kontratua sinatu zen, beste bi urtez luzagarria zena, urtez urteko luzapenekin.

Beraz, orain proposatzen dena da 3 urte horiek igaro ondoren lehenengo luzapena egitea.

Batzarkideek, Osasun eta Gizarte Zerbitzuen batzordearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp. Zkia.: ID.05/2017-0375

1.- AURREKARIAK

2018ko urtarrilaren 30ean egindako ohiko bilkuran erabaki zen Gestion de Servicios Residenciales, S.Coop-i (aurrerantzean, “GSR”) adineko pertsonentzako Usurbileko Puntapax eguneko zentroaren erabilera eta kudeaketa zerbitzua emateko kontratua esleitzea. 2018ko otsailaren 14an aipatutako esleipenaren kontratua sinatu zen.

Plegu administratiboetan eta kontratuan aurreikusten den bezala, prestazioa burutzeko epea hiru urtekoa zen eta kontratua beste bi urtez luzatu ahal izango zen, urtez urte, hortaz, gehienez ere bost urteko iraupena izango zuen. Hortaz, 2021eko otsailaren 14tik aurrera lehen hiru urteak igarota lehen luzapena gauzatzeko aukera dago betiere bi alderdiak ados badaude. Azken urtean egon diren kontratazio teknikari aldaketak direla eta luzapena egiteke geratu zen.

GSR-ek kontratuaren luzapenerako eskaera egin du.



Usurbilgo Udala

Prezioari dagokionean, plegu administratiboetako 8. klausularen arabera kontratu honi ez dagokio prezio berrazterketarik eta ondorioz kontratuaren prezioa otsailaren 2an sinatutako kontratuan ezarritakoa izango da, hots:

- Lanegunak: 47,12€ (4% BEZ, 1,88 €, guztira 49,00 €)
- Jaiegunak eta asteburuak: 51,77€ (%4 BEZ, 2,07 €, guztira 53,84 €)

Gizarte Zerbitzuen saileko arduradunak kontratua luzatzearen aldeko txostena osatu du.

2.- APLIKAGARRIA DEN LEGEDIA

- 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duena
- Maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 legea partzialki garatzen duena.
- Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua, Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duena.

Hori dela eta, azaroaren 28ko 2568/1986 Dekretuak onartzen duen Toki Erakundeetako antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoaren Erregelamenduan (ROF delakoa), 175. artikuluan ezarritakoaren arabera, kontratu honen organo eskudunari honako erabaki hau hartzeko proposatzen zaio:

Guzti hau kontutan izanik, Osasun eta Gizarte Zerbitzuen Batzordeak 2021eko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Itziar Basterrika, Beñat Larrañaga eta Carlos Perez-en aldeko bozkekin, aho batez, luzatutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENENGOA: G.S.R., Gestion de Servicios Residenciales, S. Coop-ri “*Adineko pertsonentzako Usurbileko Puntapax eguneko zentroaren erabilera eta kudeaketa zerbitzua emateko kontratua*”ren lehen luzapena egitea urte baterako, atzeraeraginez 2021ko otsailaren 14tik 2022ko otsailaren 13ra.

BIGARRENA: Plegu administratiboetako 8. klausularen arabera kontratu honi ez dagokio prezio berrazterketarik eta ondorioz kontratuaren prezioa honakoa dela zehaztea:

- Lanegunetan: 47,12€ (4% BEZ, 1,88 €, guztira 49,00 €)
- Jaiegun eta asteburuetan: 51,77€ (%4 BEZ, 2,07 €, guztira 53,84 €)

HIRUGARRENA: 2021 urteko aurrekontuko 8000 227 231 0104 kontusailaren kargura 258.559,00 euroko gastua onartzea.

LAUGARRENA: Erabakia GSR-ri, Gizarte zerbitzuetako sailari eta Kontu-hartzailetzari jakinaraztea.”



Usurbilgo Udala

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Ainhoa Arrozpide Landa, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Carlos Pérez Fraisoli eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, aho batez onartu da.

9.- KOLONBIAKO EGOERARI BURUZKO ADIERAZPENA.

Alkateak adierazi du Antolakuntza batzordean erabaki zutela Legebiltzarrean adostu zen testu bera ekartzea Udalbatzarrera.

Jarraian, Luken Arkarazok adierazpena irakurri du.

Batzarkideek, Antolakuntza batzordean gehiengoz onartua izan zen adierazpena azertu dute eta aho batez hartu dute erabakia:

“KOLONBIAKO EGOERARI BURUZKO ADIERAZPENA

Joan den apirilaren 28an, Kolonbiako herria kalera atera zen bizi-baldintza justuak eskatzeko, Ivan Duqueren Gobernuaren zerga-erreformaren aurka eta justizia soziala duen herrialde baketsu baten eskakizunarekin.

Ordutik, mugarik gabeko Geldialdi Nazionalean daude, eta, ordutik, Gobernuaren erantzuna errepresio bortitza izan da protestarako eskubidea legitimoki erabiltzen ari diren pertsonen aurka, bizitza duina eta giza eskubideen errespetua eskatuz.

Sistema demokratiko batean, protesta soziala oinarrizko eskubideetako bat da, eta Estatuak errespetatu eta bermatu behar du.

Herritarren oinarrizko beharrei erantzuteko aukera emango duen zerga-sistema bidezko eta progresibo baten aldeko gizarte-eskaeren aldarrikapen baketsua bermatu behar da, baita Bake Akordioaren garapen erreala eta integrala eskatzen duten eskaerena ere, funtsezkoa baita bake egonkor eta iraunkorrerantz aurrera egiteko.

Hainbat plataformaren arabera, Langabezia Nazionala hasi zenetik, poliziaren indarkeria, eraildako eta zauritutako pertsonak, atxiloketa arbitrarioak eta indarkeria sexuala izan dira Indar Publikoaren eskutik. Herrialdeko hirietan etxeko bideoekin grabatutako irudi askok ez dute zalantzarik uzten, eta herritarren aurka su-armak erabiltzen dituen Indar Publiko bat erakusten dute, indarkeriazko eta bereizketarik gabeko errepresioan.

Honen aurrean, ezin gara isilik egon.

Indar polizialak kolonbiarrak erreprimitzen, jazartzen, zauritzen eta hiltzen ari dira, eta, beraz, gogorarazi behar diogu gobernuari bere erantzukizuna dela Giza Eskubideak babestea eta



Usurbilgo Udala

bermatzea, bizitzarako eta segurtasun pertsonalerako eskubidea barne, bai eta bilera baketsua egiteko askatasunerako eskubidearen erabilera erraztea ere.

Horregatik guztiagatik,

- Kaleetan legez protesta egiten dutenen aurkako errepresio basati eta bidegabea salatzen dugu.
- Ivan Duqueren Gobernuari eskatzen diogu Kolonbiako herritar guztien giza eskubideak babesteko eta bermatzeko.
- Indar Publikoak eragindako indarkeria-gertakari guztiak argitzea eskatzen dugu, eta dagozkion erantzukizunak zehaztea, bai haien maila ofizialetan, bai agindu horiek eman dituzten gobernuetan.
- Elkartasuna adierazten diegu protestaren kriminalizazioaren ondorioak jasan dituzten eta jasaten dituzten pertsona guztiei.
- Salatzen dugu indarkeriaren gorakadaren egoera erabiliz, mobilizazioetatik kanpoko taldeek ondasun komunak arpilatu eta erasotzeko erabili izana, bai eta ekintza horiek protesta soziala kriminalizatzeko erabili izana ere.
- Gure elkartasuna adierazten diegu Kolonbiako herriei, eta beren eskaerekin bat egiten dugu bizi-baldintzak benetan hobetzeaz eta justizia soziala duen herrialde baketsu bilakatzeaz hitz egiten dutenak.
- Nazioarteari eskatzen diogu elkartasun adierazpenak egin ditzala Kolonbiako herriarekin, bai eta Ivan Duqueren Gobernuaren aurrean behar diren ekintza diplomatiko eta politikoak egin ditzala ere, errepresioa amaitzeko eta Kolonbiako Herriaren Eskubideak errespetatzeko.”

Honela izan da bozketa:


Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapiain, Ainhoa Arrozpide Landa, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Carlos Pérez Fraisoli eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, aho batez onartu da.

10.- PALESTINAREN EGOERARI BURUZKO ADIERAZPENEA.

Alkateak adierazi du ikusi zutela Antolakuntza batzordera eraman zen testua ordurako pixkabat zaharkituta geratu zela eta eguneratzea komeni zela. Testu berri bat ekartzeko konpromisoa hartu zuten, gainontzeko alderdiei ere pasa zaie eta adostua izan dela aipatu du.

Beñat Larrañagak adierazpena irakurri du.



Usurbilgo Udala

Batzarkideek, Antolakuntza batzordean tratatua izan zen adierazpena aztertu dute eta aho batz onartu dute, honela dio:

“Israelgo auzitegiek Jerusalemgo Sheikh Jarrah auzotik hainbat familia kanporatzeko eta Israelgo estatuko segurtasun indarrek Al-Aqsa meskitaren aurka egindako erasoaren ostean, Palestinako tentsioa gogortu egin zen berriro.

Benjamin Netanyahu Israelgo lehen ministroak asteartean, maiatzak 11, iragarri zuen Israelek Gazaren aurkako erasoak areagotu zituela. Ia 10 egunez luzatu ziren erasoetan, ehunka bonbardaketa egin ditu Israelek Gazan eta ondorioz, 232 palestinar hil dira, horietako 65 umeak.

NBEk hasieratik ohartarazi zuen, indarkeria maila horrek Palestinako biztanleengan izango zituen ondorioez. Zorionez, dagoeneko su-etena baieztatu dute baina eragindako sarraskia sekulakoa izan da.

Gertakari horien aurrean, Usurbilgo Udalak:

- Israelek Palestinako herriari egiten dizkion giza eskubideen urraketak salatzen ditu. Ildo horretan, nazioarteko komunitateari dei egiten diogu erasoaldi militar hori errepikatu ez dadin eta elkarrizketarako zein negoziatorako bideei eusteko, Mahmud Abbad Palestinako presidentek Europako erakundeekin laguntzarekin Nazioarteko Bake Konferentzia bat egiteko egindako eskaera babestuz.
- Nakbaren 73. urteurrenean, Israelek lurralde palestinarrek legez kanpo okupatzea salatu eta gaitzesten du, eta, aldi berean, elkartasuna eta konpromisoa adierazten du herri palestinarren giza eskubideen defentsarekin, Nazioarteko Zuzenbideak ezartzen duen bezala.
- Palestinarako laguntza humanitaria indartzeko eskatu die euskal erakundeei, pandemiak are gehiago areagotu baitu haien egoera.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zampirain, Ainhoa Arrozpide Landa, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Carlos Pérez Fraisoli eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, aho batez onartu da.

11.- GALDERA-ESKAERAK.

Alkateak adierazi du puntu hau baliatu nahiko lukeela Osoko bilkurari bi gairen berri emateko.

Lehenengo gaia dela dio Zubietako Errauste Plantak jatorri industrialak duten hondakinak kudeatzeko, tratatzeko edota errausteko egindako eskaeraren aurrean Ingurumen Sailak



Usurbilgo Udala

eguneratu dion Ingurumen Baimen Bateratuaren aurkako errekurtsio bat aurkeztu duela Usurbilgo Udalak. Hemen errekurtsio hori aurkeztearen arrazoiak zeintzuk diren azaldu nahi dituela esan du.

Otsailaren hasieran komunikabideen bitartez eta zehazki Arantxa Tapia sailburuaren ahotik jakin zutela dio Zubietako Errauste Plantara industria jatorriko hondakinak eramango zituztela, bistan dela dio hau kokatu behar dutela Zaldibarko zabortegeiak eragindako hondamendiaren ondorioz hartutako erabaki bat bezala. Urte luzeetan Zaldibarrera eraman dituzten milaka tona industria hondakin horiekin zer? Bistan da azpiegiturarik gabe geratu direla eta hondakin horiei soluzio bat eman nahi zaiela.

Albistea kezka hartu zutela adierazi du, ikusita Zaldibarren zer nolako deskontrola egon den. Zubietan hiri hondakinak kudeatzeak eragiten dituen ondorioekin kezkatuta baldin badaude, are eta kezkatuago daudela dio bertara hondakin industrialak eramatearekin, tartean hondakin arriskutsuak izan daitezkeenak eramatearekin.

Aukera horri bide ematen dion ebazpena kaleratu zuen Ingurumen Sailak otsailaren 12an eta ebazpen horretan esaten da ez duela eragiten edo suposatzen aldaketa esanguratsurik eta besterik gabe Ingurumen Baimen Bateratua eguneratu egiten zaiola.

Ebazpen horrek, jadanik kezka horretatik haratago eta legearen ikuspegitik zalantza ugari eragiten dizkiela eta errekurtsoren bat tartekatu edo ez aztertzen aritu zirela adierazi du. Zer egin baloratu zutela dio ingurumen zuzenbidean aditua eta profesionala den abokatu batekin, Jaime Dorestes abokatuarekin, eta ikusi zuten bazeudela nahiko motibo nahiko oinarri errekurtsio bat aurkezteko. Beraz, errekurtsio hori tartekatzea erabaki zutela jakinarazi du.

Hau ikusita, Udalak lehenengo egin zuena izan zen eskaera luzatu Eusko Jaurlaritzari Ingurumen Baimen Bateratuari buruzko espedientean interesdun izaera onartzeko Usurbilgo Udalari. Eskaera horri baiezkoa eman zioten apirilaren 28an jasotako idatzian eta Usurbilgo Udalari interesdun izaera onartu zaio. Aipatutako baiezkoa jaso ondoren hilabeteko epea zeukaten errekurtsioa aurkezteko. Epe hori bihar amaitzen dela eta bihar bertan aukeztuko dutela errekurtsioa esan du.

Beraien ustez Zubietako Erraustegian hondakin industrialak kudeatzea bada funtsezko aldaketa bat eta hori da argudiatzen saiatzen direna errekurtsioan eta ondorioz eskatzen dutena da ebazpena nulotzat jotzea. Gora jotzeko errekurtsio hau onartuko ez balitz, udal honek epaitegira jotzeko erabakia duela gaineratu du.

Alkateak jarraitu du esanez abokatuak azaldu dituela arrazoiak, lege aipamenak, jurisprudentiari erreferentziak, horiek guztiak ez dituela hemen aipatuko baina bi ideia nabarmendu nahiko lituzkeela.

Batetik, abokatuak dio ebazpena ez dagoela nahikoa arrazoituta, alegia, motibazio falta nabarmen bat dagoela. Edozein administrazio publikoren betebeharrak dela dio edozein ebazpen behar bezala arrazoitzea eta kasu honetan Eusko Jaurlaritzak betebeharrak hori nabarmen urratzen duela uste dute, izan ere ez baitu arrazoi bat bera ere ematen aldaketa ez funtsezkotzat jotzeko, ez da inondik inora justifikatzen ez egiaztatzen ez eta argudiatzen ere.



Usurbilgo Udala

Beste ideia da, aldaketa hau funtsezkoa ote den edo ez den. Jaurlaritzaren iritziz ez da funtsezkoa, baina beraien uste baietz dio. Funtsezkoa dela argudiatzeko abokatuak legeei, sententziei eta ezarri diren jurisprudentziei aipamena egiten diela adierazi du. Zehazki legeek omen diote aldaketa ez funtsezkotzat joko dela soilik ezarritako aldaketak isuriak aldatzen edo murrizten ez dituenean. Aldiz, legeek omen diote aldaketa funtsezkotzat joko dela isuriak aldatzen edo handitzen direnean, kutsatzaile berriak kopuru esanguratsuetan sartzen direnean, sustantzia edo hondakin arriskutsuen sorrera areagotzen denean eta horrek guztiak pertsonengan eta ingurumenean ondorio kaltegarriak edo garrantzitsuak izan baditzake. Beraz, beraien ustez ez dago inolako dudarik aldaketa esanguratsu batetaz hitz egiten ari direla, izan ere jatorri industrialak duten hondakinak erraustu nahi direlako eta gainera horietako batzuk hondakin arriskutsuak ere badirelako.

Abokatu honek ere esaten duela dio zergatik diren arriskutsuak, alde batetik, hondakinak kodigo baten arabera sailkatzen dira, Jaurlaritzaren ebazpenean zehazten da zehazki ze hondakin berriri emango zaien sarrera kodigoen arabera eta kodigo hori duten hondakinek izugarriko plastiko pila dutela esan du, eta denek dakitela dio plastikoak gehigarri kimiko oso arriskutsuak dituztela eta horiek erretzeak ingurumenean eta herritarren osasunean eragin negatiboa izan dezaketela; gainera, CO₂ emisioak nabarmen handitzea ekarriko duela, eta isurketa horietan sortuko diren sustantzia horiek badirela minbizi sortzaileak eta horrela onartuak dituela Minbiziaren Ikerketarako Nazio Batuen Agentziak. Horretaz gain, plastikoaren gehikuntzak eta plastikoaren errausketak eragin ditzazkenaz aparte, eta berriro ere erreferentzia eginez hara eraman nahi diren eta kodigo horiek dituzten hondakinen kasuan ere esaten da, batzuei deitzen zaie ispilu kodeak, horien artean sartzen dira arriskutsuak zein arriskutsuak ez direnak, jatorri argia ez duten hondakinak, eta legeak dio ispilu kodeak dituzten hondakinak hondakin arriskutsu bezala tratatu behar direla eta beraz hondakin arriskutsuak diren bezala Europako Batasuneko doktrina guztiek esaten dute kasu hauetan ezer aplikatu behar baldin bada hori kautela printzipioa dela, eta kautela printzipioa izan beharko lukeela ingurumen politika oro gidatu beharko lukeen gida-lerro nagusia. Horregatik uste dutela dio eta eskatzen dela dudaren aurrean eta hondakin arriskutsu horien aurrean kautela eta printzipio legea dela aplikatu beharko litzatekeena.

Errauste planta hau diseinatu zutela dio hiri hondakinak kudeatzeko eta ez mota honetako hondakinak kudeatzeko, beraz, mota honetako hondakinak kudeatzen, tratatzen, erretzen hasi nahi badira hemendik aurrera, horrek ezinbestean adierazten du badela eta badaudela funtsezko aldaketa baten aurrean. Hori da hain zuzen ere errekurtsio honetan adierazten duten gakoetako bat.

Hemen beste kontu bat ere badagoela esan du, eskumenen auzia, hain zuzen ere. Europako 2018ko hondakinen zuzentarauak hiri hondakinen definizio bat ematen du eta hor espreski baztertzen dituela dio industria jarduerako hondakinak eta esaten du gainera kudeaketa esparru desberdinekoak direla, hiri hondakinak kudeaketa publikokoak direla eta industria jatorria duten hondakinak arlo pribatuari dagozkiola. Beraz, horren arabera mankomunitateek sortu duten kontsorzio bat izanik, eta kontsorzio hori izanik errauste planta gestionatuko duena, hor ez dagoela eskumenik mota honetako hondakinak gestionatzeko. Errekurtsio honetan aipatzen duten beste gaietako bat dela hau zehaztu du.

Arrazoi askoz gehiago ere aipatzen direla errekurtsioan esan du, eta nahi badute errekurtsioa eskuragarri dutela jakinarazi du.



Usurbilgo Udala

Usurbilgo Udalak errekurtsua aurkezteko pausoa ematen du eta ebazpen nulotzat ematea eskatzen da. Era berean, Zaldibarra ateak itxi nahi dizkion errekurtsu bat ere badela gaineratu du.

Lehenengo gaiarekin amaituta, bigarren gaiari heldu dio alkateak.

Osoko bilkura honi ere jakinarazi nahi diola esan du Ucinek Udal honen aurkako administrazioarekiko auzi-errekurtsu bat aurkeztu duela.

2021eko otsailaren 9an Tokiko Gobernu Batzarrak Ucini jarduera baimena eguneratu zion eta jarduera hori eguneratzeko hainbat baldintza ezarri zitzaizkiola gaineratu du. Aurretik Eusko Jaurlaritzak berak kasu honetan ere Ingurumen Baimen Bateratuan zehaztutako baldintzak, gehi Udalak berak gai honetan dituen eskumenak baliatuz ezarritako baldintza berriak. Udalaren ustez inportantea zen Jaurlaritzak berak zehaztutako baldintzak baino neurri zorrotzagoak eskatu dizkiola Udalak Ucini eta batez ere neurri zorrotzagoez ari direnean hizketan ari dira partikula batzuk, zehazki lau partikula, etengabe neurtzeko edo modu jarraituan neurtzeko betebeharra dela Udalak ezartzen duena. Aldiz, Jaurlaritzak eskatzen zion partikula baten etengabeko neurketa egitea eta gainontzekoen aldian aldiko neurketa egitea.

Ucinek errekurtsu hau aurkezteko arrazoiak oraindik ez dituztela ezagutzen aditzera eman du. Udalak Epaitetik eskaera jaso duela esan du espedientearen epategira bidaltzeko eskatuz eta aste honetan bidali dela zehaztu du. Bestalde, interesa izan dezakeen errekurtsu honetan pertsonatzeko aukera izango du orain eta alde horretatik herrian ingurumen arloan aritzen diren elkarteei pertsonatzeko aukera hau luzatu diela adierazi du.

Udalak abokatua eta prokuradorea izendatu dituela esan du.

Alkateak bere aldetik esan du Ucinen erabaki hau penaz hartu duela. Udal gobernu hau eta badaki aurrekoa ere, behin baino gehiagotan bildu izan direla Ucineko arduradunekin eta horiei behin baino gehiagotan elkarlanerako deia luzatu izan diela eta dei horren aurrean jaso dutena izan da isiltasuna eta ezezkia.

Bestalde, pandemia honek krisi asko utzi dituela agerian esan du eta horietako bat krisi ekologikoa dela. Klima aldaketari aurre egitea mundu mailako erronka bat dela esan du eta mundu mailako erronka bat den aldetik tokiko administrazioaren erronka ere badela esan du. Erronka horri eragin eta aurre egin nahi badiote, ezinbestekoa dela esan du neurriak hartzea kutsadurak murrizteko, garai bateko instalazioak berritzeko eta bide hori ulertzen dute erakundeak, enpresak eta herritarrak eskutik helduta elkarlanean egin behar dutela.

Alkateak berak Ucini aitortu izan diola esan du beraien aldetik urratsak egiten ari direla eta urrats horietan sakontzeko eskua luzatu izan diela adierazi du. Zehazki aurreko urtean Kataluniako Unibertsitateko ikerlariekin aire kalitatea neurtzeko lan handi bat egin zuten, eta ikerlari hauek herrian zeudela baliatuz hauekin bilera bat egiteko aukera jarri zitzaion Ucini eta hauek ezezkia eman zuten.



Usurbilgo Udala

Bestalde, gai hau herri honetan kezka sortzen duen gai bat dela esan du eta kezka konpartitua bat dela. Ucinak herrian jarraitzea nahi dutela dio baina ahalik eta kutsadura gutxienarekin jarraitzea; horretarako neurriak hartu behar direla, horretarako inbertsioak egin behar direla eta horixe zela esan du jarduera baimena berri zitzaienean ezartzen zituzten baldintzak.

Udalak lanean jarraituko duela esan du kutsadura gutxitzeko eskatu ditzazkeen neurriak eskatzen eta ahal dela betearazten. Hala ere, gaineratu du Udalak bere kabuz ez dituela nahikoa baliabide eta Jauraritzaren laguntza ezinbestekoa dutela. Tamalez, laguntza hori orain arte ez dutela askorik jaso gaineratu du.

Jose Mari Iribarrek adierazi du Kataluniako Unibertsitate Politeknikoarekin iaz lanketa bat egin zela eta hor airearen polinizazioa egitekotan geratu zirela. Lanketa hori burutu dela esan du eta azken batzordean lanketa horren emaitzen berri eman zela. Era berean, ekainaren 29an jendaurreko lanaren aurkezpen bat ere egingo dutela esan du.

Alkateak batzaraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:54tan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.